

15 ARABA

Altubeko Hezeguneak



Ingurumen-garrantzia

Altubeko idoiak zingira borobilak dira, oro har, neurri txikikoak, hektarea erdi ingurukoak.

Euskal Herrian diapiroei lotutako hezeguneen adierazlerik behinenak dira, Arreo-Caicedokoaintzirekin eta Olandina eta Arbietoko urmaelekin batera.

Horien jatorria igeltsuzko Karst hodian suntsitze eta hondoratzean dago, torka txikiak sortzeko.

Hezegunehauek ohikoak dira Euskal Herrian, baina ezaugarri hidrogeologikoengatik eta transizio bioklimatikoko zonalde batean egoteagatik, paregabeko hezegunetzat ditugu idoi hauek.

Hezegune hauek interes handikoak dira eta ingurumen-balio gorena dute, batez ere, biodibertsitateagatik: kontserbaziorako interes berezia duten hedadura txikiko Komunitate ez ohikoak eta organismo bitxiak,

esaterako, Qimperreko barrakiloa (*Elona quinperiana*), eguneko tximeleta (*Euphydryas aurinia*), txitxi-burruntzia (*Coenagrion mercuriale*), sorgin-orratza (*Oxygastra curtisii*) eta arkanbelea (*Lucanus cervus*).

Aipagarriak ere badira uretako landaredia eta narrasti eta anfibioen espezie batzuk, batez ere, desagertzeko arriskuan dauden bi: gailurretako uhandrea (*Triturus alpestris*) eta baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*).

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 3,7 km



Ordu 1



Udalerria:

Zuia

Hurbileko herria:

Altube



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



640 m



40 m



616 m



41 m



Altubeko Hezeguneak




Non dagoen eta nola heldu

Altubeko urmael multzoa Gorbeia Parke Naturalean dago, Arabako Lurralde Historikoaren ipar-mendebaldeko koadrantean, Gorbeialdea eskualdean, Altube herriaren inguruan, Zuia udalerrian. Bertaratzeko, (N-622) Altubeko autobidea hartuko dugu Gasteiz-Bilbao norabidean, eta (A-68) Autopistako ordainlekura iritsi baino lehenago, (A-624) errepidetik joko dugu Amurrio. Mila eta berrehun metro egindakoan helduko gara abiapuntura.

Altubera doan (A-624) errepideko desbideratzea harturik, kilometro batera hartuko dugu errepidearen eskuin aldera hasten den lur-bidexka. Albo bietako landak zeharkatuta, haritzez, pagoz eta erkametez osatutako baso txiki batean sartuko gara. Bidearen sarreran Gorbeia Parke Naturalaren inguruko informazioa duen panela aurkituko dugu. Kilometro bat inguru eginda, ezkerretara aurkituko dugu Landazurieta I urmaela, oso gertu, eskuinetara, Landazurieta II. hirurehun bat metro lur-bidexkan aurrera, beste bide bat dago. Guk, ezkerretik hartuta ehun bat metrora, belardi txiki bat zeharkatu behar dugu non Marakalda I eta Marakalda II idoiak aurkituko ditugun. Lur-bidean atzera eginez, (A-624) errepidera itzuliko gara. Altuberako norabidean, ehun eta hirurogeita hamar metrora ezkerreko bidea hartuko dugu etxebizitza batetara heldu arte. La Peña I eta La Peña II idoiak etxearen bi aldeetara daude, abeltzaintzarako zelaietan. Puntu horretatik gure bideari eutsiko diogu larre sailen zehar, eta pago eta haritzez gain, pinuak dituen baso batean sartuko gara. Ezkerretara, zador batean, Mestalaza idoia dugu, eta 60 bat metrora, Monreal idoia. Bertan, atseden hartuko dugu paisaiatz oragarria gozatzeko. Idoia inguratuta, golf zelaia eskuinetara utzita, berrehun bat metro egingo dugu aurrera eskuinetara hartzeko, eta gero golf zelaiaren mugetatik lauhun bat metro eginda, Zazpi Iturri idoiak utziko ditugu geure eskuinetara. Lur-bide batetik jarraiki, ehun eta berrogeita hamar metrora ezkerretara hartuko dugu azken idoiraino heltzeko: Kukulupadra. Hura inguratuta, (A-624) errepideraino joko dugu, bertatik abiapuntura heltzeko.

Nahiz eta urmaelak edozein urtarotan bisita daitezkeen, udaberria (martxoa) da egokiena, batez ere, euri-sasoia ondorenean.



Deskargatu
ibilbidea:



Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Altubeko Hezeguneak



Altubeko Hezeguneak

